

# **PASAPORTEA IZAPIDETZEKO BEHARREZKO**

## **DOKUMENTAZIOA**

### **ADINGABEAK**

#### **A) NANik ez dutenak**

- **Guraso-ahala duen helduarekin etorri beharko dute, behar bezala identifikatuta.**
- **Pasaportea lehen aldiz egiteko, JAIOTZA-AGIRIA eraman behar da, pasaportea lortzeko bakarrik eman dela adierazten duen ohar batekin** (gehienez 6 hilabeteko balioa izango du). Jaiotza-agiriak “inskribatutakoaren erregistro indibidualaren kode-pertsonala” badu, aipatutako oharra ez da beharrezkoa izango.
- **Pasaporterako gaur egungo argazki bat.**
- **Indarrean dagoen tasa.**

#### **B) NANA dutenak**

- **Guraso-ahala duen helduarekin etorri beharko dute, behar bezala identifikatuta.** Ama edo aita atzerritarra bada, Bizileku-ziurtagiria edo Pasaportea onartuko da. Ez du balio Bizileku-ziurtagiria eta pasaportea berritzeko eskaera aurkeztea (berritu ahal izango zaio edo ez); kasu horietan, indarrean duten pasaportea ekarri beharko dute.
- **Familia-liburua** (jaiotza-agiriak ere balio du).
- **Pasaporterako gaur egungo argazki bat.**
- **Indarrean dagoen tasa.**

### **ADINEZ NAGUSIAK**

- **Indarrean dagoen NANA.**
- **Pasaportea, indarrean dagoen bat badauka.**
- **Pasaporterako gaur egungo argazki bat** (ez da beharrezkoa NANA duela 2 urte baino gutxiago egin bazuen).
- **Indarrean dagoen tasa.**

## **GALTZEAGATIK EDO LAPURRETAGATIK**

Salaketa jarri bada, salaketa bera aurkeztu beharko da.

Ematen den pasaporteak aurrekoaren indarraldia izango du, iraungitzeko urtebete baino gutxiago geratzen ez bazaio. Kasu horretan, indarraldi normala izango du, eta indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da. Arrazoi hauengatik izapidea bigarrenegiz egiten bada, pasaportearen baliozkotasuna 6 hilabetera mugatu ahal izango da.

**TASAK ORDAINTZETIK SALBUETSITA DAUDE HONAKO HAUEK:** Familia ugariko kideak, baldin eta familia ugariaren liburu originala edo izapidea egingo zaion kidearen txartel indibiduala aurkezten badute.

**OHARRA:** Kontsultatu pasaportearen iraungipena, adinaren arabera.